

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Bizikletak ekoizten dituen enpresa batekin aliantza bat izango dugu, hau da: haiek produzitzen dituzten bizikletak erosiko ditugu eta gero gure enpresa propioan eraldatu egingo ditugu hobetzeko. Eguzki paneletan espezializatutako beste enpresa batekin harremanetan jarriko gara baita ere. Guk haien bitartez haiek ekoizten dituzten produktuak eskuratzeko.

Lehen aipatutako bateria eramangarriak berriz, gure enpresan egingo eta instalatuko ditugu guk erositako makineria eta tresneria erabiliz.

Beste enpresekin aliantzak egitearen helburuak baliabideak eskuratzea eta gure negozio eredia optimizatzea dira. Horretaz aparte, akordioa dugun dendetan gure produktuak ere salmentan egongo dira.

